2018/06/15 57 notizia(k)

Abbadiaren sekretua / Morillo, Fernando (1974-...) (2012)

Abbadiaren sekretua [testu inprimatua] / Morillo, Fernando (1974-...), Egilea. - Irun : Gaumin, 2012. - 143 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Su gazte; 2) .

ISBN 978-84-939229-4-8 : 12,30 EUR.
Laburpena : Abbadia Eremua liluragarria eta misteriotsua da. Alar eta Kaiet anaiak larriturik daude : badirudi zerbait beldurgarria gertatzen dela han. Bi lagun desagertu dira bertan, eta susmo latz bat dabil airean. Zer munstro mota ezkutatzen da zuhaitz artean edo gaztelu sorgingarrian ?
Are okerragoa dena. Amona gerlariz jantzi eta eremura joan da, aspaldian hitza eman omen zuelako leku hura defendatuko zuela. Zoratu egin ote da ? Bi anaia gazteek eta haien lagunek proba arriskutsu asko igaroko dituzte eremuan, Antton Abbadiaren sekretuaren bila. Beraien familiako historian bertan bilatu beharko dute, izadiz eta historiaz blaituriko leku miresgarri hark gordetzen duen misterioa argitzeko.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-1285/2012
Sortze_data : 2013/06/13

Aingeru guardakoa, ez izan ganorabakoa / Calleja, Seve (1953-...) (1998)

Aingeru guardakoa, ez izan ganorabakoa [testu inprimatua] / Calleja, Seve (1953-...), Egilea; Novoa, Teresa, Irudigilea; Auzmendi, Lurdes, Itzultzailea. - Bilbo : Aizkorri, 1998. - 96 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .

ISBN 978-84-8263-311-4 : 7,75 EUR.
Laburpena : Istorio honetako protagonista eta narratzailea Agapito da, Agatxistu deitua, txikia eta argala delako. Dena den, bere adineko beste edozein mutiko bezalakoa izango litzateke bere bizitzako une bakoitza anaia bikiarekin partekatu behar ez balu. Anaia bikiak Agatxistuk ez dituen koalitate asko ditu, eta beti konparatzen dute harekin. Agatxistuk uste duenez, Koldo, anaia bikia, ez da pertsona normala, bere aingeru guardakoa da, behar bada. Uste hori areagotu egiten da bere aldetik urruntzen den eta handik aurrera dena gaizki ateratzen zaion egunetik. Une horretan Agatxistuk bere aingeru guardakoa berreskuratzeko nahia ikusten du, eta bere nahiak eta sentipenak ondoen adierazten dituen moduan deitzen dio: bertsoz.
Anaiaren desagerketak familia osoa asaldatu du, eta Agatxisturi ezinegon izugarria sortu dio, bere bertsoek aingeruaren erantzuna jasotzen dutela ikusten baitu; erantzun horiek erronka bezala hartzen ditu, eta, ondorioz, iragarkiak jartzen ditu egoera horretatik irteten lagunduko dion aingeru guardako berria aurkitzeko. Horrela hautagai bitxienak ezagutuko ditu: Donuts, lotsati eta beldurtia; Sugandila, lotsagabe eta maltzurra; Xaoli, tratu txarren biktima errugabe eta galdua. Ordutik aurrera, anaiaren itzulerarekin batera, Agatxisturen jarrera aldatu egingo da. Eta etxean dena normaltasunera itzuli dela dirudienean, Agatxistuk desagertzeko erabakia hartzen du, istorio berri baten protagonista bilakatzeko: aingeru guardako bilakatuko da, besteei laguntzeko.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*) **Jatorrizko hizkuntza(k)** : Gaztelania (*spa*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 10 urtetik aurrera
Lege gordailua : LE-763/98

Bilduma : Aizkorri : Mendi Sorgindua

Amaia Lapitz eta erregina gorriaren hilobia / Agirre, Katixa (1981-...) (2010)



Amaia Lapitz eta erregina gorriaren hilobia [testu inprimatua] / Agirre, Katixa (1981-...), Egilea; Orbe, Alex, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2010. - 175 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Amaia Lapitz; 1) .

ISBN 978-84-9783-919-8 : 15,45 EUR.
Laburpena : Amaia Lapitzek nahiago luke uda Irlandan igaro, bere lagunen antzera, baina horren ordez ama arkeologoa lagundu beharko du Palenquera, Mexikoko hondakin maien eremura. Bertan emandako lehenengo gauean, deskubrimendu izugarri bat egingo du Amaiak : aztarnategiko zuzendariaren gorpuarekin egingo du topo. Poliziak gauzak argitzeko baino interes gehiago daukanez errua indigena zapatistei leporatzeko, Mario izeneko lagun egin berriaren laguntzaz kasua argitu beharko du gure protagonistak.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 10 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-950/2010
Sortze_data : 2011/07/08
Bilduma : Elkar : Amaia Lapitz
Idazlearen bibliografia : Agirre, Katixa
Argazkiak, jendea : Agirre, Katixa

Amets uhinak / Landa, Mariasun (1949-...) (1999)



Amets uhinak [testu inprimatua] / Landa, Mariasun (1949-...), Egilea; Lucas, Jesus, Irudigilea. - 5. arg.. - Donostia : Elkarlanean, 1999. - 150 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Xaguxar; 93) .

ISBN 978-84-8331-383-1.
Laburpena : Irudimen eta bizitasun handiz idatzitako ipuin bilduma. Batzu fantasiatsuak dira eta beste batzu errealitaeari gehiago lotuak. Gehienetan haurrak dira protagonista. Abentura eta gertakizun ugari bada beraien artean. Oso liburu atsegina irakurtzeko, ezpainetan irribarrea sortzen duen horietakoa.
Edukia : Bart gaueko bilera
Mikaela detektibea
Azken bidaia
Komedianteak
Txaf planetaf
Lorito mendekaria
Opil
Maisu zaharraren testamentua
Igogailu bihurria
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Narrazio laburra(k)
Publikoa : 10 urtetik aurrera
Lege gordailua : NA-2150/1998
Lehen argitaraldia : 1981
Bilduma : Elkarlanean : Xaguxar bilduma

Animalien inauteria / Juaristi, Felipe (1957-...) (2000)



Animalien inauteria [testu inprimatua] / Juaristi, Felipe (1957-...), Egilea; Olariaga, Antton, Irudigilea. - Donostia : Erein, 2000. - 175 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Auskalo Bumeran; 17) .

ISBN 978-84-7568-853-4.
Laburpena : Hartz jauna iratzarri da, jaiki, nagiak atera eta jantzi : praka beltz lisoak, alkandora lodi koadroduna; gainean, jertsea. Mendiko botak ere bai. Sua egin, ura berotu eta kafea prestatu. Leihotik begiratu eta ihintza egin zuela konturatu zen. Zamarra hartu zuen badaezpada, betaurreko kutxa gorde eta irten zen.
Gandu artean, azeri jaunaren etxea ageri zen. Bost urte ziren hartz jaunaren laguna joan zela. Desagertu egin zen. Hilda zegoela esaten zutenak ere baziren.
Goiz hartan, berriz, bere lagunaren etxetik kea zeriola iruditu zitzaion hartz jaunari.
Azeriaren itzulera zen!
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-1113/2000

Antonio Bolas : gezurrak egiaren kolorean esaten zituen gizon baten istorioak / Ormazabal, Joxantonio (1948-2010) (2003)

Antonio Bolas : gezurrak egiaren kolorean esaten zituen gizon baten istorioak [testu inprimatua] / Ormazabal, Joxantonio (1948-2010), Egilea; Lucas, Jesus, Irudigilea. - 2.arg. - Donostia : Elkar, 2003. - 158 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Xaguxar; 121) .

ISBN 978-84-8331-922-2 : 11,75 EUR.
Laburpena : Antonio Bolas 1923ko urriaren 20an jaio zen Zegaman, eta 1999ko ekainaren 14an hil. Igeltseroa zen langintzaz eta bere zaletasunik handiena gezurrak esatea. Gezur politak ziren harenak, finak, irudimentsuak, denak barrez lehertzen jartzeko modukoak ; Antoni artista baitzen gezurrak egiaren kolorez esaten. Bere etxeko ganbaran hegazkin-kumeak edukitzen zituen, gasolinarekin itzali zuen behin sua, itsaso azpian baldosak jartzen ere askotan aritu zen, seme bat ere ba omen zuen bera baino zaharragoa, urte batean hiru uda pasa zituen Frantzian frantsesa ikasten... Horrelako pasadizo ugari aurkituko ditu irakurleak, marrazkiz horniturik, hildakoari ere barre egingo liokeen liburu bitxi honetan.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 10 urtetik aurrera
Lege gordailua : NA-2112/2003
Sortze_data : 2004/12/22
Bilduma : Elkar : Xaguxar
Idazlearen bibliografia : Ormazabal, Joxantonio

Asiakleta / Elosegi, Amaia (2000)

Asiakleta [testu inprimatua] / Elosegi, Amaia, Egilea; Martiarena, Iñaki "Mattin" (1969-...), Irudigilea. - Donostia : Erein, 2000. - 118 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Auskalo Bumeran; 20) .

ISBN 978-84-7568-907-4 : 9,10 EUR.
Laburpena : Bizikletak hartu, poltsak jarri, zakua, denda eta gainerakoak gehitu, eta pedalei eraginez abiatu ginen Asiarantz. India, Txina, Nepal, Irak, Japon...
Istanbuletik, Turkiako hiriburutik abiatu ginen gure bizikletan zama-zama eginda. 50 kilo baino gehiago generaman: a zer traste pila! eta a zer pisua! Nire bizikletak nik neronek baino pisu gehiago zuen. Asiakleta honetan Asia barrena egindako bidaiaren berri ematen digu Amaia Elosegik. Berak Esther

Mugerza izan zuen bidelagun eta guk denok, berriz, Iñaki Martiarena "Mattin"-en marrazkiak ditugu.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 10 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-713/2000
Bilduma : Erein : Auskalo Bumeran

Balantx / Kazabon, Antton (1954-....) (1998)



Balantx [testu inprimatua] / Kazabon, Antton (1954-....), Egilea; Erostarbe, Xabier, Irudigilea. - Donostia : Elkarlanean, 1998. - 75 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Xaguxar; 92) .

ISBN 978-84-8331-400-5.
Laburpena :

Umetan ez zen oso ondo bizi izan Joxe Mari, gaztetan arazo larriak izan zituen. Eta orduan edanari eman zion, mozkortu egiten zen penak ahazteko. Horregatik deitzen zioten Balantx. Herriko mutiko gaiztoek iseka egiten zioten. Baina eskerrak Hodei eta bere lagunei. Haiek lagundu baitzioten Joxe Mariri mozkortu gabe eta zoriontsu bizitzen.

Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 10 urtetik aurrera
Lege gordailua : NA-2449/1998
Sortze_data : 2018/06/01
Bilduma : Elkar : Xaguxar
Idazlearen bibliografia : Kazabon, Antton

Baleen haranean / Tellaetxe, Jose Antonio (1959-...) (2000)



Baleen haranean [testu inprimatua] / Tellaetxe, Jose Antonio (1959-...), Egilea; Tellaetxe, Jose Antonio (1959-...), Irudigilea; Suarez, Jon (1947-...), Itzultzailea. - Bilbo (Henao, 6) : Desclée de Brouwer, 2000. - 64 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak, sail laranja) .

ISBN 978-84-330-1403-0.
Laburpena : Arratsaldeko eguzkia Zazpi txikiaren ile beltzarana laztantzen ari zen Iparmendebaldeko mendietako labarrean. Aspaldian, handik iritsi ohi ziren balea urdinen saldoak, Akaitz izeneko haitz erraldoia nagusi zeneko zelaietan txibiak jatera... Zazpi urteko haurrentzat urte asko dira zazpi urte, eta areago Zazpi izena baldin badu.
Itzali egin zen Zazpi, beso laburrak gorputzean behera erortzen utzi eta burua makurtu zuen.
- Zergaitik deitzen naiz Zazpi ? Zergaitik ez du ja inork baleetaz hitz egiten ? Zergaitik ez dira itzultzen ?
Hizkuntzak : Euskara (*baq*) **Jatorrizko hizkuntza(k)** : Gaztelania (*spa*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 10 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-805/2000
Idazlearen bibliografia : Tellaetxe Isusi, Jose A.

Bele beltz pirata / Larreula, Enric (2006)

Bele beltz pirata [testu inprimatua] / Larreula, Enric, Egilea; Vila Delclos,

Jordi, Irudigilea; Oyanguren, Jon, Itzultzailea. - Euba : Ibaizabal, 2006. - 163 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Paper txoriak. Sail berdea; 7) .

ISBN 978-84-8325-964-1 : 9,80 EUR.
Laburpena : 1660. urtean, Jacques Lagarden gazteak familiaren ohiturari jarraitzea erabaki eta pirateriari ekin zion, Bele Beltz gerra-izena hartuta. Beste inor bezain ausarta eta adoretsua da, ongi hezia eta kulturaz jantzia, eta tratuan, berriz, oso adeitsua. Ospetsu egin zen Karibe osoan. Espainiako merkantzia-ontziak gero eta zuhurrago zebiltzan, eta Espainiako gerra-ontziak, berriz, gero eta zorrotzago...
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 849 (Katalanierazko literatura)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 10 urtetik aurrera
Jatorrizko izenburua : Ala de Corb
Lege gordailua : Z-2827/06

Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian / Atxaga, Bernardo (1951-...) (1998)



Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian [testu inprimatua] / Atxaga, Bernardo (1951-...), Egilea; Olariaga, Antton, Irudigilea. - Donostia : Erein, 1998. - 100 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Auskalo Bumeran; 7) .

ISBN 978-84-7568-748-3.
Laburpena : Bi letter jaso nituen oso denbora gutxian, hamar eguneko tartearekin edo. Biak zuzen-zuzen etorri ziren nik Boiseko city amerikano honetan daukadan etxeraino, eta nire iloba Jimmyk jarri zizkidan eskura. Azkenengoarekin ailegatu zenean ni mimosaren adarrak txukuntzen nengoen, umore onean, alegia, zerengatik umore txarrean nagoenean ez baitut gardena zaintzen hasteko gogorik izaten, eta dolar bat eman nion sari bezala. Halere Jimmyk kezkatuta bezala begiratu zidan, sudurra zimurtzeko berak daukan keinu very nice horrekin.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-873/98
Bilduma : Erein : Auskalo Bumeran

Dado iratxoa / Calleja, Seve (1953-...) (2002)

Dado iratxoa [testu inprimatua] / Calleja, Seve (1953-...), Egilea; Muñoz, Jose Maria, Irudigilea; Monasterio, Xabier (1959-...), Itzultzailea. - Donostia : Elkar, 2002. - 72 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Xaguxar; 113) .

ISBN 978-84-8331-069-4 : 7,90 .
Laburpena : Gillermo ohean dago gaixo, giltzurrunek ez diote behar bezala lanik egiten, eta makina baten laguntza behar du. Hala dagoela, asper-asper eginda, dado bat heltzen da bere eskuetara. Mutikoa eta dado hori dira, bada, liburuxka polit honetako protagonista nagusiak. Iratxo bihurri, eta aldi berean zintzo, bihurtuko du dadoa Gillermoren irudimenak. Eta Dado Iratxoari zer bururatuko, eta gaixo dagoen mutikoaren gorputza barrutik aztertzea bururatzen zaio.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 10 urtetik aurrera
Lege gordailua : NA-118/2002
Lehen argitaraldia : 2002/02
Sorturtea : 1986/10
Bilduma : Elkar : Xaguxar

Diamantezko miraria / Urteaga, Joxemari (1961-...) (2006)

Diamantezko miraria [testu inprimatua] / Urteaga, Joxemari (1961-...), Egilea; Bengoetxea, Kaiet, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2006. - 205 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Taupadak; 14) .

ISBN 978-84-9783-394-3 : 12,60 EUR.
Laburpena : Martin Aldiakoa mutikotan aitarik gabe geratu zenean, nekez susmatuko zuen bere bizitzak izango zuen aldaketa: bizimodua irabazi beharrez, etxekoak utziko ditu, baita Ondarroa bere sorterria ere. Beiragile jakintsu batengana joango da, Durangora, baina bidaia luze eta misteriotsuago batean abiatuko da laster, Galizia alderantz.
XVIII. mende hasieran kokatutako nobela historiko eder bat idatzi du egileak, irakur-gai gozagarria izateko osagai guztiak dituena: abentura, misterioa, bidaia, amodioa... Bestalde, Kaiet Bengoetxearen marrazkiek jantzi eta hornitzen dute istorioa.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : 533/2006

Erregina bahitua / Arana, Aitor (1963-....) (2000)

Erregina bahitua [testu inprimatua] / Arana, Aitor (1963-....), Egilea; Campos, Alberto, Irudigilea. - Bartzelona : Giltza, 2000. - 102 or.: kol. ir.; 17 cm. - (Tukan; 34) .

ISBN 978-84-8118-573-7.
Laburpena : Iratiko basoan ipuin asko dabil : jende xeheak gertaera ulergaitzak lertzeko asmoz asmaturiko istorioak, sorgin, lamia, herensuge eta iratxoen kondairak... Inork ez ditu sinesten, baina haurrei kontatzen zaizkie ekaitza denean, trumoiek eta oinaztargiek Lurra menperatzen dutenean. Baina, agian, basoko izaki magikoak dira mitoen atzean ezkutatzen direnak, ez dutelako nahi gizakiok beren berri izan dezagun.
Edukia : Basoko ekaitza
Joana Albretekoa, Behenafarroako erregina
Lamia zaharraren hitza
Erreginaren domina
Maddi jainkosa
Bi ahizpen bizilekua
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Gako-hitzak : Mitologia Ipuin_klasikoak Lamiak Sorginak
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Haur literatura
Publikoa : 8 urtetik aurrera
Lege gordailua : B-34283/2000
Sortze_data : 2003/10/14

Esne katilu batean ezkutatu zen neska / Cillero, Javi (2005)

Esne katilu batean ezkutatu zen neska [testu inprimatua] / Cillero, Javi, Egilea. - Bilbo : Aizkorri, 2005. - 87 or.; 21 cm. - (Topaleku) .

ISBN 978-84-8263-418-0 : 8,95 EUR.
Laburpena : Neska hori ez da besteak bezalakoa. Behin esne-katilu batean ezkutatu zen, aitarengangik ihes egiteko. Beste batean txiki-txiki bihurtu zen psikoloaren kontsultan. Agian, film gehiegi ikusi ditu. Halere, bere bizitza oso arrunta da. Eskolara doa, eztabaidaka ibiltzen da aita-amekin..., baina eguneroko kontuak ere kontu magiko bihurtzen dira irudimenaren bidez...
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)

Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : LE-138/2005
Sortze_data : 2005/10/10
Bilduma : Aizkorri : Topaleku
Idazlearen bibliografia : Cillero, Javi
Argazkiak, jendea : Cillero, Javi

Estatua baten historia / Etxeberria, Hasier (1957-...) (2002)



Estatua baten historia [testu inprimatua] / Etxeberria, Hasier (1957-...), Egilea; Muñoz, Joxean (1957-...), Irudigilea. - 2.arg. - Donostia : Elkar, 2002. - 81 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Xaguxar; 116) .

ISBN 978-84-8331-739-6 : 8,00 EUR.
Laburpena : Juan Sebastian Euri-Meuri Lopes. Hauxe da liburu honetako protagonistaren izena. Meteorologo honek telebistan lan eginten zuen. Halako batean arazo larria sortu zen : negurik ez zen joaten ; ekainaren lehenengo astea izan arren, udaberriaren arrastorik ere ez. Juan Sebastian Euri-Meuri meteorologoak udaberriaren atzerapen hura aztertzea erabaki zuen. Egia esan, ez zuen oso lan erraza hartu, zalantzaz eta buruhaustez betea. Lortuko ote du Euri-Meurik jakitea urte hartan udaberriak zergatik ez zuen etorri nahi ? Liburu honetan argitzen da hori guztia eta gehiago.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : NA-634/2002
Lehen argitaraldia : 1988
Sortze_data : 2004/03/12
Bilduma : Elkar : Xaguxar
Idazlearen bibliografia : Etxeberria, Hasier

Ester erreginaren barauak / Calleja, Seve (1953-...) (1996)

Ester erreginaren barauak [testu inprimatua] / Calleja, Seve (1953-...), Egilea; Mendizabal, Antxiñe, Itzultzailea. - Bilbo (Henao, 6) : Desclée de Brouwer, 1996. - 184 or.; 19 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak, sail gorria) .

ISBN 978-84-330-1149-7.
Laburpena : Abenturazko nobela honetan, XVII. mendean Inkisizioak jazarritako neska gazte judu espainiar baten istorioa kontatzen da. Atlantiar Ozeanoaz bestalde abiatzen da, beste asko bezala, han bere lur agindua duelakoan. Mundu berri hartan lurralde eta jende ezberdina ezagutuko ditu. Bizinahia eta sinesmena ditu Esterrek ekipaje bakartzat. Eta horiei esker, bihurtuko da neska gaztearen odisea. Bizi dituen esperientziak haren izpiritua aldatuko dute Bibliako erreginaren berraragiztapen literario bilakatuz.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*) **Jatorrizko hizkuntza(k)** : Gaztelania (*spa*)
Gako-hitzak : Inkisizioa Juduak Sefardi
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Jatorrizko izenburua : Los ayunos de la reina Ester
Lege gordailua : BI-1446/96
Sorturtea : 1990
Sortze_data : 2010/12/22

Etzi / Linazasoro, Karlos (1962-...) (2007)

Etzi [testu inprimatua] / Linazasoro, Karlos (1962-...), Egilea; Olariaga, Antton, Irudigilea. - Donostia : Elkar, 2007. - 55 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Xaguxar; 156) .

ISBN 978-84-9783-556-5 : 8,45 EUR.
Laburpena : Bruno. Hamahiru urteko mutikoa. Ezin ditu beste neska-mutikoek egin ditzaketen gauza asko egin; dohain handiak ditu, baina gabeziak ere bai. Musu indartsuak ematen dizkie gurasoei, nobia ere badu, burugogorra da, bihurria, maitagarria Etxean asko estimatzen dute, baina orain Brunoren eserlekua hutsik dago.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-1438/2007
Sortze_data : 2009/04/06
Bilduma : Elkar : Xaguxar

Ezekiel / Osoro, Jasone (1971-...) (2009)

Ezekiel [testu inprimatua] / Osoro, Jasone (1971-...), Egilea. - 23.. - Donostia : Elkar, 2009. - 133 or.; 20 cm. - (Taupadak; 27) .
Laburpena :

Liburu honetan lau mutil gaztez osaturiko koadrilako gorabeherak kontatzen dira. Ezekiel eta bere lagunek inoiz ez dute neskarik musukatu eta egun batean, apustu bat egingo dute neska bat ea nork lehenago musukatu. Neskak, koadrila, nortasun eta izaera kontuak, homosexualitatearen aurkikuntza zein bestelako gaiak lantzen dira nobelan. Umorea, arintasuna eta gazte hizkera jorratzeko ahalegina nabaria da liburu honetan.

[UNESCO_V2] 3 Kultura:3.40 Literatura:Literatura nazionala:Europako literatura:Euskarazko literatura
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-804/2009
Sortze_data : 2011/01/06
Publikoa : Kolegio maila
Eremua : Literatura

Ezka / Zabala, Edu (2004)



Ezka [testu inprimatua] / Zabala, Edu, Egilea. - Bilbo (Sancho de Azpeitia, 2, 48014) : Gero-Mensajero, 2004. - 151 or.: z.-b. ir.; 22 cm. - (Ekilore; 35) .

ISBN 978-84-271-2654-1 : 11,00 EUR.
Laburpena : 1407an Erriberriko jauregitik egindako zur eskaria da abiapuntu historikoa akzio eleberri honetan; ardatz nagusia Burgiko almadiari talde baten gorabeherek osatzen dute. Almadiari talde horrek arrisku eta erronka berriei aurre egin behar die, hala nola: Ezka eta Aragoi ibaien ezusteei, Hetxo bailarako nabatari oldarkorrei eta mugan bizitzearen ondorioz, baita Aragoiko soldaduen jazarpenari ere. Dena den, etxe barruan, Burgi bertan, izango dute almadiari erronkariarrek etsai nagusienetariko bat: Nikolas abeltzaina, eta harekin garbitu beharko dituzte hainbat istilu.
Edukia : Aragoin hil
Erriberriko enkargua
Koadrilaren prestaketa

Ezkan behera, Erriberirantz
Bigarren bidaia. Mendeku bila
Erronkari helburu
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Gako-hitzak : Ertaroa Nafarroa Burgi Almadiak Eleberri_historikoa
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 14 urtetik aurrera
Lege gordailua : BI-2823/04
Lehen argitaraldia : 2004
Sortze_data : 2011/09/20
Bilduma : Gero-Mensajero : Ekilore
Idazlearen bibliografia : Zabala, Edu
Laburpena_frantsesez : L'histoire de cette nouvelle débute par la commande de bois effectuée par le château d'Erriberri ; le thème central se situe autour des péripéties d'un groupe de transporteurs de bois sur radeaux de Burgi . Ce groupe de transporteurs de bois sur ra

---

Galtzagorria / Lartategi, Josu (1999)

Galtzagorria [testu inprimatua] / Lartategi, Josu, Egilea. - Bilbo : Aizkorri, 1999. - 61 or.: z.-b. ir.; 21 cm. - (Hegan) .

ISBN 978-84-8263-106-6 : 5,95 EUR.
Laburpena : Galtzagorria lasai-lasai bizi da bere arbasoen baserrian. Zulo-etxe polit batean du egoitza, eta denborarekin txukun-txukun utzi du. Objektutxoak lapurtzen ditu, eta horiekin bere gustuko zulo-etxea osatuz joan da. Baserriak, ordea, biztanle gehiago ere baditu: gizakiak. Familia hori ere bertan bizi izan da belaunaldiz belaunaldi.
Galtzagorriek eta gizakiek betidanik konpartitu dute baserria. Elkarren berri izan gabe, nork bere bizitza egin du eta inoiz ez dute elkarbizitzarako arazorik eduki: orain arte. Egun batean, arratoia dela pentsatuz, galzagorria hil nahi izan dute. Galtzagorria, noski, haserretu egin da. Eta Galtzagorri bat haserretzen denean, edozer gertatu ahal da.
Edukia : Galtzagorriaren etxea
Gizakien etxea
Galtzagorriaren erabakia
Lehenengo barrabaskeria : Atearena
Bigarren barrabaskeria : Kandelarena
Hirugarren barrabaskeria : Negarrarena
Laugarren barrabaskeria : Oilarrarena
Bosgarren barrabaskeria : Tximiniarena
Seigarren barrabaskeria : Behiarena
Zazpigarren barrabaskeria : Esnearena
Azkenaurreko barrabaskeria : Piparena
Azken barrabaskeria : Txizontziarena
Katua
Sugegorria
Galtzagorria zulo-etxean
Ariketak
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Gako-hitzak : Galtzagorriak
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Haur literatura
Publikoa : 8 urtetik aurrera
Lege gordailua : LE-1476/99
Sortze_data : 2010/10/06
Bilduma : Aizkorri : Hegan bilduma

Galtzerdi suizida / Landa, Mariasun (1949-...) (2002)



Galtzerdi suizida [testu inprimatua] / Landa, Mariasun (1949-...), Egilea; Olariaga, Antton, Irudigilea. - 2.arg. - Donostia : Elkar, 2002. - 93 or.: kol. ir.; 20 cm.

ISBN 978-84-8331-795-2 : 15,90 EUR.
Laburpena : Orain dela aste batzuk gertatu zen: laugarren solairutik bota nuen neure burua. Eta harrezkero gertatu zaizkidanak kontatu nahi nituzke hemen, niri, bederen, sinestezinak eta harrigarriak iruditzen baitzaizkit.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : NA-2312/2002
Sortze_data : 2004/03/10
Idazlearen bibliografia : Landa, Mariasun ; Olariaga, Antton
Argazkiak, jendea : Landa, Mariasun ; Olariaga, Antton

Gorpuen lapurrak / Stevenson, Robert Louis (1850-1894) (1999)

Gorpuen lapurrak [testu inprimatua] / Stevenson, Robert Louis (1850-1894), Egilea; Arakistain, Ana, Apailatzaile zientifikoa. - Bilbo (Henao, 6) : Desclée de Brouwer, 1999. - 56 or.; 19 cm. - (Mikoleta; 17) .

ISBN 978-84-330-1409-2.
Laburpena : Fettes bere hirugarren basokada ron bukatzen ari zen eta erdi-lotan zegoen. Azken hitzak entzutean esnatu egin zela ematen zuen eta bi aldiz "Macfarlane" abizena errepikatu zuen bat-bateko zirraraz.
- Hala izena du, hain zuzen ere - esan zuen; Wolfe Macfarlane doktorea.
Edukia : Testu lantzeko ariketak
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-700/99
Sortze_data : 2010/03/15
Bilduma : Desclee : Mikoleta bilduma

H gabe / Colina, Sustrai (1982-...) (2006)



H gabe [testu inprimatua] / Colina, Sustrai (1982-...), Egilea; Mitxelena, Jokin (1962-...), Irudigilea. - Etxebarri : Zubia, 2006. - 110 or.: z.-b. ir.; 20 cm.

ISBN 978-84-8147-835-8 : 8,00 EUR.
Laburpena : Zer egin gelakideek mespretxatzen zaituztenean ? Inork kasurik egiten ez dizunean ? Nola jokatu mundu guztiak ikastetxeko hormarik zurienean agertu den pintadaren egiletzat zauzkanean ? Galdetu Manu, Xabi eta Joxemariri. Agian ez dizute erantzun argirik emango, baina poztuko dira. Asko, izugarri. Azkenaldian ez baitie inork kasurik egiten kontuak eskatzeko ez bada. Eta kontuak emanda ere alfer-alferrik denean...
Edukia : Printzesaren putza
Pelikuletan bezala
Obe Keparik gabe
Biktimak eta Errudunak
Aitzurrak eta piperrak
Mazapancop
Hitz egingo dugu bihar
A zer koadroa !!!
Goazen
Esan ala egin
Gaurko ogia...
... biarko gosea
Mazapan baino mazapanago

H-gabeak
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : M-43340/2006

Harri barruko bihotz-borrokak / Zabala, Juan Luis (1963-...) (1999)



Harri barruko bihotz-borrokak [testu inprimatua] / Zabala, Juan Luis (1963-...), Egilea. - Donostia : Elkarlanean, 1999. - 94 or.; 20 cm. - (Branka; 71) .

ISBN 978-84-8331-516-3 : 8,75 .
Laburpena : Hiru ipuinek osatzen dute Harri barruko bihotz-borrokak, lotura estua duten hiru istoriok, pertsonaiak eta gertaerak batetik bestera igarotzen baitira, ikuspegiak aldaturik. Abesteko gogoa galdu duen kantautore baten ezinegona ageri da "Bihotza galdu zait" kontakizunean; etorkizun handiko ziklista baten zalantzak eta borrokak dira kontagai "Barruan daukadan guztia" ipuinean; torturaren atzaparkadak bere larruan nozitutako neska gazte bat topatuko dugu "Harri kozkor bat naiz" istorioan. Elkarri hari finez jositako hiru ipuin, arin irakurtzen direnak baina gogoan geratzen zaizkizunak; izan ere, euskal gizarteko erretratu bat eskeintzeaz gain, nonahi eta noiznahiko gazteen kezkak dira liburuan agertzen direnak: amodioa eta sexu-harremanak, adiskidetasuna eta konpromisoa, norberaren nortasuna eta hori finkatzeko borrokak.
Edukia : Bihotza galdu zait
Barruan daukadan guztia
Harri kozkor bat naiz
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : NA-1186/1999
Bilduma : Elkarlanean : Branka

Hildako baten txangoa / Dueso, Antton (1962-...) (2001)



Hildako baten txangoa [testu inprimatua] / Dueso, Antton (1962-...), Egilea; Domenech, Aintzane, Irudigilea; Dueso, Antton (1962-...), Irudigilea; Elustondo, Miel Anjel (1958-....), Itzultzailea. - Bilbo (Henao, 6) : Desclée de Brouwer, 2001. - 48 or.: z.-b. ir.; 20 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak, sail laranja) .

ISBN 978-84-330-1591-4.
Laburpena : Baleriano Larrabide nekaturik zegoen, hainbeste denbora zeraman hilik! urteak eta urteak ziren hil zenetik eta, egia esan, orduak, egunak, hilabeteak eta urteak mantso eta makal zihoazen. Ez zegoen hildakoen bakea urratzen zuen ezer... Horregaitik, azaroaren lehen hartan -arimen eguna-, Balerianok bizidunen artera irtetea erabaki zuen, hildakoek gau hartan 24 orduko baimena zutela probetxatuz. Balerianok hilobi zaharra ostiko batez zulatu, harlauza baztertu eta hilerritik kanpora irten zen ...
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 12 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-712/01

Hogeita bost ipuin motz / Arnal Gil, Javier Ignacio "Txabi" (1998)

Hogeita bost ipuin motz [testu inprimatua] / Arnal Gil, Javier Ignacio "Txabi",



Egilea; Isasi, Nerea, Irudigilea. - Bilbo (Henao, 6) : Desclée de Brouwer, 1998. - 73 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Ipotxak eta erraldoiak, sail laranja) .

ISBN 978-84-330-1311-8.
Laburpena : Tituluak berak argi eta garbi azaltzen digunez Hogeita bost ipuin motz liburua kontu labur asko biltzen dituen lana dugu. Protagonista nagusia bilatu behar izango bagenu ipuin guzti hauetan zehar, horixe irudimena genuke. Haurrak, helduak eta agureak, abereak eta piztiak. Edozein gauza, biziduna ala bizitzarik gabekoa, badaiteke ipuin harrigarri hauen pertsonaia izan, eta pertsonaia hauei edozein gauza gerta dakieke. Azken finean, egileak dionez, «hogeita bost ipuin hauek konpartitzen duten ezaugarria gazteentzako zein helduentzako opari bat izatea da».
Edukia : Neguko arratsalde hotz batean
Jirafek lepoa motza zutenekoa
Argo Gorria eta Txakurra
Lezio ahaztezina
Behin baziren zuhaitza eta aizkolaria
Zorroztarri amaigabea
Txakurrak bezalakoa ez zen txakurra
Txakur afrikarra
Izaskun eta ura
Azken zuhaitza
Suterik ikaragarriena
Iosuk ipuin bat idatzi behar du
Non erori da izarra?
Zapatak txakurrarentzat
Elenenaren eraztuna
Antonia eta Ilargia
Toño eta eguzkia
Behientzako medizina
Plateraren ametsa
Asierrek ipuin bat idatzi nahi du
Aitita, sagarrondo zaharra, sagarrondo gaztea eta laurok
Ohituratik ihes
Erlojuaren zaintzaleak
Koloreetako jertsea
Hogeitabosgarrena
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Generoa : Narrazio laburra(k)
Publikoa : 8 urtetik aurrera
Lege gordailua : SS-887/98
Lehen argitaraldia : 1998
Sortze_data : 2012/09/18
Bilduma : Desclée De Brouwer : Ipotxak eta erraldoiak

Jontxuren fragata / Balzola, Asun (1942-2006) (1998)



Jontxuren fragata [testu inprimatua] / Balzola, Asun (1942-2006), Egilea; Balzola, Asun (1942-2006), Irudigilea; Auzmendi, Lurdes, Itzultzailea. - Bilbo : Aizkorri, 1998. - 42 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Mendi sorgindua) .

ISBN 978-84-8263-314-5.
Laburpena : Jontxu esnatu zenean logela zuri batean zegoen, ohean, ezkerreko hanka izterrondora arte igeltsotua eta polea baten bidez airean zuela; ezkerreko besoa ukalondora arte igeltsotua zeukan, baita eskubiko eskua ere. Jontxu ezin zitekeen mugitu, errehabilitazioa egin behar zuen. Dena den, benetako askatasuna ez dela mugitu ezinda egotea ikasi zuen, norberak buruan daukan zerbait baizik.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*) **Jatorrizko hizkuntza(k)** : Gaztelania (*spa*)
Indexazio hamartarra : 860 (Gaztelaniazko literatura)
Generoa : Gazte literatura

Publikoa : 10 urtetik aurrera
Lege gordailua : LE-1348/98
Bilduma : Aizkorri : Mendi Sorgindua

Katixa, Kroko eta Kokoroko / Olaizola, Jesus Mari "Txiliku" (1951-...) (1997)

Katixa, Kroko eta Kokoroko [testu inprimatua] / Olaizola, Jesus Mari "Txiliku" (1951-...), Egilea; Zabaleta, Jon (1950-...), Irudigilea. - Donostia : Elkar, 1997. - 146 or.: z.-b. ir.; 19 cm. - (Xaguxar; 80) .

ISBN 978-84-7917-754-6.
Laburpena : Katixa zazpi urteko neskatila beltzarana da. Kroko, berriz, liburu batetik ihes egindako krokodiloa. Eta Kokoroko ikastolan jaiotako oilo bat da, munduko oilorik bizkorrena. Hiru pertsonaia hauen historiak elkarren artean gurutzaturik daude. Bakoitzak berea eta beste bien historia kontatzen ditu, baina ez dira batere errepikakor eta aspergarriak bihurtzen, bakoitzak bere ikuspegitik kontatzen baititu gauzak. Errealitatearen eta fantasiaren arteko umorezko eskailera-mailak igoz eta jaitsiz, oso lan ederra burutu du egileak oraingo honetan.
Hizkuntzak : Euskara (*baq*)
Indexazio hamartarra : 899.923 (Euskarazko literatura - Fikzioa)
Generoa : Gazte literatura
Publikoa : 10 urtetik aurrera
Lege gordailua : NA-2359/1997
Lehen argitaraldia : 1997
Sortze_data : 2010/11/16
Bilduma : Elkar : Xaguxar

Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean / Landa, Mariasun (1949-...) (1997)

Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean [testu inprimatua] / Landa, Mariasun (1949-...), Egilea; Balzola, Asun (1942-2006), Irudigilea. - Bilbo : Anaya, 1997. - 96 or.: kol. ir.; 20 cm. - (Liburu zopa; 2) .

ISBN 978-84-207-8261-4.
Laburpena : "Maiderren bizimodua goitik behera aldatu da amak antzerkian berriz lan egingo duela erabaki eta aita etxetik joan denean. Gauzak horrela direla, Ofelia, katua, izango da Maiderren sentimentuen irtenbidea; jakina denez, "katuak hain bakarrik sentitzen dira..." Baina, halako batean, Ofeliak ihes egiten du zaintzen duten baserriko etxetik eta Maider bere katutxoaren bila doa, arriskuak aintzat hartu gabe."
Edukia : Katuak
Katuak bakar-bakarrik
Katuak bakar-bakarrik sentitzen direnean
Mariasun Landa (elkarrizketa)
